

ALC^K

AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER
for Social and Political Studies



ETORKIZUNENKO LIDERRAK PRESTAKUNTZA PROGRAMA 2019/2020

PROGRAMA FORMATIVO LÍDERES DEL FUTURO 2019/2020

IZENBURUA: ETORKIZUNENKO GIZARTEA: IKUSPEGI GAZTE BAT

EGILEA: IÑIGO GONZÁLEZ MANCISIDOR

ETORKIZUNeko EUSKAL GIZARTEA: IKUSPEGI GAZTE BAT

I. SARRERA

Nolakoa izatea gustatuko litzaiguke etorkizuneko Euskadi? Hori da gazteok etengabe buruan izan beharko genukeen galdera eta irudikatzen saiatu beharko ginatkeen errealitatea.

Gaur egungo Euskadi gure herriak azken hamarkadetan bizitako eraldaketa sakonaren emaitza argia da. Mundu globalizatu baten parte izanik, kanpotik ezarritako arauetara moldatu eta eurekin jokatu behar izan dugu, baina beti ere gure nortasuna indartzeko aukerak identifikatuz eta aprobetxatuz. Gure nagusien lanari esker, gizarte aurrerakoi, lehiakor, jasangarri eta integratzaile baten parte garela esan dezakegu. Harro egoteko argudioa izateaz aparte, erantzukizun handia da hurrengo belaunaldientzat, gure ardura izango baita jasotakoa hobetzea.

Mundua etengabe ari da aldatzen eta, beraz, ez da lokartzeko garaia. Herriek eta nazioek belaunaldi berri, konprometitu, prestatu eta trebeen beharra daukate gizatalde bezala etorkizunean emango diren erronkei aurre egin ahal izateko. Gure erabakia izango da datozen aldaketak pairatzea, datozen aldaketak behin azalduta kudeatzen saiatzea edota nahi ditugun aldaketak eragitea.

Gure gizarteak 2050 urtea horizonte moduan izanda landu beharko dituen desafio nagusiak hauek dira: eredu sozio-ekonomiko gizatiarrago bat garatzea, immigranteen eta errefuxiatuen erabateko integrazioa lortzea, euskara komunikaziorako hizkuntza bilakatzea, benetako elkarbizitza eta bakea izatea, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzea, bizimodu jasangarriago bat ezartzea, arlo publikoaren kudeaketa hobea eta eraginkorragoa planteatzea eta birbanaketa hobe bat ahalbidetuko duen hazkunde ekonomikoa sustatzea.

Aipatutako esparru guztiak euskal nazioaren eraikuntzaren barnean txertatzen ditut. Ez dago aberri eraikuntzarik eraikuntza sozialik gabe. Gure herriak aski daki bere instituzioek eta botereek ez dutela ondo funtzionatuko baldin eta ez badaukate euren atzetik modernoa, progresista, aurrerakoa eta integratzailea den gizarte bat. Pertsonak gara herri honen arima eta motorra eta gure helburua gizarte osatzen duten kolektibo guztiak proiektu elkarbanatu baten parte sentitzea izan behar da, atzean arrazoi ekonomiko edo sozialak direla medio inor utzi gabe.

Euskadik nazio bezala aurrera egingo du bere hiritargoak gizartearekin bat egiten baldin badu eta identifikazio hori justizia sozialaren, aukera berdintasunaren eta aldarrikatzen dituen eskakizun justuen gauzapenen bitartez soilik lortuko du.

Txosten honen helburua aipatutako erronka horietako bat gazte ikuspuntu batetik aztertzea da, migranteen eta errefuxiatuen erabateko integrazioa, hain zuzen. Ez dugu emaitza edo erantzun borobilik lortuko, baina gure geroaren ildoak diseinatzeko beharrezkoak diren oinarriak finkatzeko balio izango digu.

II. HERRITARTASUN KONTZEPTU BERRIA

Pelloc 21 urte ditu. Bilbon jaioa da. Bere gurasoak, Kamerundarrak izanik, duela 30 urte etorri ziren Euskadira, bizitza proiektu bat garatu ahal izateko baldintza hobe batzuen bila. Aita garbitzaile lanetan ibili da eta ama, aldiz, agure-zainketan. Deustuko auzoan bizi da eta bertako ikastolan egin zituen ikasketak. Izatez, musulman erlijioarekin lotura daukate etxean, nahiz eta oso praktikanteak ez izan. Orain, Euskal Herriko Unibertsitatean dabil ekonomia ikasten. Lagunekin euskaraz egiten du berba gehienbat. Oso talde heterogeneoa da, arraza, estraktu sozial eta identitate desberdinetako gazteek osatzen baitute. Bere neska-laguna Bizkaiko herri txiki batekoa da, gatikarra. Ez dio arbasoen jatorriari muzinik egiten eta euskal nortasunarekin elkarbanatzen du. Bere identitatea zein den galdetzekotan euskal-kamerundarra dela erantzungo dizu.

Horrelako istorioak badira dagoeneko euskal gizartean eta, nahiz eta etorkizunerako aurreikuspenak egitea erraza ez den, gure herria, Europar Batasuneko gainerako herrialdeak bezala, askotarikoagoa izango da epe ertainean. Immigrazioa euskal demografiaren gertakari iraunkorra da gaur egun eta ez fenomeno koiunturala. Lehenengo grafikoak argi erakusten du, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den eta jatorri atzerritarra duen biztanleriaren kopurua oraindik oso agerikoa ez den arren, goranzko joera finkatzen ari dela. 2020aren hasieran erroldatuta zeuden 2.219.777 pertsonetatik 241.193 atzerriko herrialderen batean jaio da, hau da, biztanleriaren %10,9, zifra espainiar estatuarena baino baxuagoa izanik.




Lehenengo grafikoa. Iturria: Ikuspegi– Atzerritar jatorriko biztanleak EAE-n 2020

Nahiz eta identitatearen arloan Euskadin eztabaida nagusia euskal nortasunaren edo euskal- espainol/euskal-frantsez nortasunaren arteko lehia izan, konturatu gabe eta gure artean, bestelako identitateak sortzen ari direnaren jakitun izan behar gara. Pluraltasun hori modu egoki batean kudeatzen jakitea erronka izugarria da euskal gizartearentzat eta batez ere gazteontzat. Herritartasun anitzago batera goaz eta horrek betiko eskemak eta estrategiak birplanteatzea eskatzen du, are gehiago euskal naziojintzaren proiektuaren jarraipenari dagokionez.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar Euskadi herrialde anitza dela eta gure historiaren eta identitate kolektiboaren esperientzia lagungarria izan daitekeela elkarbizitzari erantzun hobea eta egokiagoa eman ahal izateko. Kontuan izan behar da, era berean, migrazioa ez dela garai batean Espainiako zenbait lurraldetatik etorri zenaren antzekoa, talka kulturala nabarmenagoa da oraingoan, hizkuntza, erlijioa, ohiturak... asko aldatu baitira. Bigarren grafikoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan gero eta nabariagoa da atzerritar jatorrikoen gehiengo Latinoamerikako herrialderen batean jaio dela (%51,1) baina presentzia garrantzitsua dute, halaber, Magrebeko, Europar ekialdeko eta Sahara hegoaldeko afrikarrek.

Atzerritar jatorriko biztanleriaren osaera, eremu geografikoen arabera, EAEn, 1998-2018 aldia (%)



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

Bigarren grafikoa. Iturria: Ikuspegi – Atzerritar jatorriko biztanleak EAE-n 2020

Ikuspegi gazte, humanista eta euskaldun batetik, etorkizuneko euskal gizarteak bizimodu eta kultura desberdinetan oinarritutako bizikidetzak kolektiboa izan behar du irizpide. Euskal nortasunak orain arte ezagutu izan dugun bezala izateari utzi beharko dio eta herritartasun pluralago baten alde egin beharko du, bestelako identitateak barneratuz.

Atzerriko jatorria daukaten hiritarrak ezin daitezke Euskadi berriaren eraikuntzatik kanpo geratu. Beraz, identitate nagusiak ezin ditzake gainerakoak baztertu euskal gizarte multikultural baten proiektuaren sorreran. Prozesu horretan agente eta sentsibilitate desberdinek parte hartzea komenigarria izango litzateke, guztion artean forma eman diezaiozun. Desberdinen arteko errespetua, tolerantzia eta elkarrizketa elkarlanerako klima errazten dute eta gogoratu beharra dago denok osatzen dugula euskal gizarteak. Proiektu multikultural aurrerakoi batek elkarbizitzen duten identitate desberdinen garapena eta biziraupena bermatu beharko luke, berdintasunean oinarritutako eskubide eta betebeharrak batzuk ezarri eta euren arteko erlazioa sustatu.

Konparaketa bat egitekotan, mundu osoan zehar sakabanatuta dauden euskal etxeen adibidea har genezake, Ameriketakoak nabarmenduz. Erakunde hauen helburua, garai batean atzerrira joan ziren euskaldunen hurrengo belaunaldiak euskal identitatearekin, kulturarekin, balioekin eta idiosinkrasiarekin harremana mantentzea

da bereziki. Aldi berean, herri horietan euskal kultura ezagutarazteko ekintzak antolatzen dituzte. Horrelako ekimenei esker euren jatorrizko sustraiei eusten diete, baina aldi berean euren jaioterria den Argentina, Estatu Batuak, Kolonbia...herrialdeetako hiritar sentitzen dira eta gizarte horietan parte hartzen dute aktiboki.

Beraz, argi dago integrazioa ez dela lortzen jatorrizko identitatearen inposaketaren bitartez eta bi noranzkoa izan behar da nahitaez. Horrela izatekotan, kanpotik etorritakoek eta euren hurrengo belaunaldiek euskal herri abegitsu eta integratzaile batekin egingo dute topo. Epe motzean euren burua euskalduntzat hartzea eta bertako ohiturak bereganatzea da mundu globalizatu honetan gure identitate txikiak biziraun dezan irtenbide bakarra. Ondo egitekotan bizirik irten ez ezik, suspertu eta indartu ere egin daiteke. Biztanleriaren dibertsitatea balio, bizimodu eta ohitura nahasketa bat dakar eta hori erronka izateaz aparte aukera bat da Euskadirentzat.


III. ANIZTASUNAREN ABERASTASUNA

Integrazio prozesu on batek Euskadiri ekar diezazkiokeen abantailak bi kategoriatan sailka ditzakegu. Alde batetik, immigrazioak esparru sozialean dakarren aberastasuna eta, bestetik, esparru ekonomikoan daukan eragina. Egiaztapen horiek immigranteen kolektiboaren aurkako jazarpena bultzatzeko talde batzuek erabiltzen eta hedatzen dituzten faltsukeriak agerian uzten dituzte.

Unescoren aburuz, globalizazioari esker gizakiek anitzagoa ikusten dute euren burua. Kultura desberdinak gerturaten doaz eta bestelako bizimoduak dauzkaten pertsonak esperientziak elkarbanatzen dituzte. Beharrezkoa da kultura eta zibilizazio desberdinen arteko elkarriketa eta ezagutza. Ez gara ohartzen desberdina denarekin elkarbizitzeak, lan egiteak, berarengandik gauza berriak ikasteak... zer nolako ekarpen handiak egiten dizkigun. Munduan milaka kultura desberdin daude eta enpresarik arrakastatsuenak kultura aniztasun handia dutenak dira. Enpresa batean emaitza positiboa baldin bada, nola ez da izango ba gizarte baten kasuan? Horrek ez du suposatzen herri baten berezko kultura ahazten denik, sustraiak galtzen direnik, baizik eta pertsonak izaera moralagoa, intelektualagoa, afektiboagoa eta espiritualagoa garatzen dugula.

Bigarrenik, eta Euskadik daukan arazo demografikoari erreparatuz, immigranteen etorrera irtenbide bat izan daiteke. Euskadiren jaiotza-tasa oso baxua da eta biztanleriaren zahartzea guztiz kezagarria. Azken urteotan immigranteei esker lortu

da herri honen biztanleria-kopuruak beherakada handi bat ez pairatzea. Hirugarren grafikoan ikusten dugunez, 2019 urtean Euskal Autonomia Erkidegoak bertako zazpi mila biztanle galdu zituen eta atzerrian jaiotako eta hona iritsitako 19.000 etorkinei esker lortu zuen egoera orekatzea.



Hirugarren grafiko. Iturria: Ikuspegi – Atzerritar jatorriko biztanleak EAE-n 2020

Gainera, emakume immigranteek bertakoak baino seme-alaba gehiago dituzte oro har eta horri esker ongizate sistema eta pentsioak mantendu ahal izateko beharrezkoa den langile aktiboen kopurua eta zerga ordainketaren jaitsiera ez da hain nabaria.


Hirugarrenik, duela gutxi aurkeztutako ikerketa batek erakutsi egin du immigranteek euskal gizarteari egiten dioten ekarpena berarengandik jasotzen dutena baino askoz nabarmenagoa dela. Zehatz-mehatz, 2018. urtean atzerritar-jatorriko herritarrek familia-kontsumoaren bidez euskal ekonomiari eman ziotena administrazio publikotik jaso zutena baino 810 milioi euro gehiago izan zen. Beraz, arlo ekonomikoan behintzat, atzerritarren immigrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan inpaktu positiboa duela bistan dago. Hurrengo taulan azaltzen da egindako kalkulua.

Atzerritar jatorriko pertsonen ekarpen ekonomikoa EAEn BPGd-ren bidez

Urtea	Diru-sarrerak	Gastua	Sarrerak – Gastuak	BPGd 2018	BPGd-ren %
2018	Familia-kontsumoa: 1.525.292.820	Etxebizitza: 32.333.600€			
	Aurrezki-tasa: e/a	Prestazioak (DBE, EPO, GZ): 300.403.278 €			
		Osasuna: 157.580.191 €		74.041.000.000€	2,06%
	Enpresen sarrerak: e/a	Hezkuntza (UK): 224.594.933 €			
	Guztira	1.525.292.820€	714.912.002 €	810.380.818€	

Lehenengo taula. Iturria: Atzerritar jatorriko pertsonen ekarpen ekonomikoa EAEn BPGd-ren bidez (2018)

Mipex 2015 erremintak immigranteak integartzeko estatuek erabilitako neurriak neurtzen ditu. Laugarren grafikoan ikusi daitekeenez, sailkapeneko lehenengo postuetan agertzen diren herrialdeak gizarterik aurrerakoienetarikoak dira, Suedia, Kanada, Finlandia, Norvegia, Belgika, besteak beste. Beraz, esan genezake erlazio estua dagoela erabilitako politika integratzaileen eta herrien garapen mailaren artean. Horrek ondorio argi bat dakar, inmigranteen kolektiboa zenbat eta gizarte horren partaideago sentitu, orduan eta ekarpen gehiago egiten du arlo guztietan.



Laugarren grafikoa. Migration Integration Policies 2010– Mipex 2015

Horren jakitun dira gure instituzioak eta alderdien gehiengoa eta horregatik, arrakasta gehiagorekin edo gutxiagorekin, urteak daramatzate plan zehatzak martxan jartzen maila guztietan, bai udaletan, bai aldundietan eta bai gobernuetan. Horren adibide dira, “Immigrazioari buruzko I. Euskal plana (2003-2005)”, “Immigrazioari buruzko II. Euskal plana (2007-2009)”, “Immigrazioaren, herritartasun, eta kultura arteko bizikidetasunaren plana (2011-2013)”, “Immigrazioarako euskal estrategia” eta “Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana. (2018-2020)”. Gai horren inguruan jorratutako azken akordioa “Migrazioarako Euskal Itun Soziala (2018)” izan da.

IV. MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALAREN AZTERKETA

Xenofobiari aurre egitea helburu duen ituna Eusko Jaurlaritzak, Lehendakaria buru zuela, aurkeztu zuen 2019ko azaroan. Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako instituzioekin eta gizarte eragileekin landutako akordio zabala da. “Jaso nahiko genukeena eskaini” izenburutzat duen hitzarmenak ez du neurri zehatzik azaltzen

baina argi eta garbi plazaratzen du zein den euskal gizartearen apustua gai honen inguruan eta hori bada aurrera pauso garrantzitsua.

Oraingoan, ikuspuntu kritiko batetik landuko ditugu itun horrek jorratzen dituen zenbait punturen inguruko gorabeherak, immigranteek lan-merkatuan duten presentzia, hezkuntza sistema inklusibo baten falta, immigranteekiko dauzkagun aurreiritziak eta euren ikusezintasuna, besteak beste.

Lehenik eta behin, atzerritarrek euskal lan-merkatuan duten presentzia aztertuko dugu, integrazio prozesuetan lana axola handiko gai baita. Itunak dio lan-aukerak direla Euskadira emigratzeko arrazoi nagusia eta gaineratzen du berdintasun testuinguru bat talentua erakartzeko baliabide erakargarria izan daitekeela.

2019ko datuen arabera, bosgarren grafikoan antzeman daitekeen modura, Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiteko adinean zeuden atzerritar gehienak lanean ari ziren (%50,2). Hala ere, atzerriko nazionalitatea zuten biztanleen langabezia-tasa (%28,1) altuagoa zen Espainiako nazionalitatea zutenekin alderatuta (%7,6). Bestetik, atzerriko nazionalitatea zutenen artean emakumeek gehiago pairatu zuten langabezia (%29,7) gizonezkoek baino (%26,9).

arabera, gizonen jarduera-tasa handiagoa zela (% 77,8) eta emakumeen langabezia-tasa handiagoa zela (% 29,7).



Biztanleria osoa, espainiarra eta atzerritarra, lan-egoeraren arabera (%), 2019ko 4. hiruhilekoa



Bosgarren grafikoa. Iturria: Ikuspegi – Atzerritar biztanleria eta euskal lan-merkatua

Immigranteek Euskadin duten lan-egoera aztertzeke baliagarria den beste adierazle bat gizarte segurantzara afiliatuta daudenen kopurua da. Euskal Autonomia Erkidegoan, 2018 urteko bizileku-baimena zutenen artean %46,73 zegoen afiliatuta. Hurrengo taulan ikusi dezakegun moduan, 2011 urtean eztanda egindako krisiaren ondorioz, beherakada galanta bizi izan zuen indikadore horrek, baina zenbakiak hobetu ditu azkenengo hiru urteotan. Orain krisialdi berri baten atarian gaude koronabirusa dela eta ikusiko dugu zein izango den emaitza.

Bizileku-baimenen eta Gizarte Segurantzako afiliazioen bilakaera EAEn, 2001-2018


	Bizileku-baimena	Afiliazioak
2001	18.822	11.826
2002	19.515	15.615
2003	24.201	19.409
2004	28.600	22.399
2005	37.150	35.747
2006	57.395	39.347
2007	64.228	46.992
2008	83.875	49.538
2009	96.635	50.404
2010	106.658	51.497
2011	110.063	52.468
2012	119.984	51.274
2013	123.484	48.210
2014	122.994	46.916
2015	122.076	49.000
2016	124.064	51.871
2017	125.480	55.312
2018	130.829	61.144

Iturria: geuk egina, LMGSMren datuak oinarri hartuta.

Bigarren taula. Iturria: Ikuspegi - Atzerritar biztanleria eta euskal lan-merkatua

Bestalde, kontuan hartu behar da baita zein sektoretan lortzen duten enplegua immigranteek Euskal Autonomia Erkidegoan. Dirudienez, seigarren grafikoaren arabera, azken urteotan gehienbat zerbitzu sektorean, hau da, ostalaritza eta zainketa-lanetan. Eraikuntzan ere izan dute pisu nabaria baina krisia dela eta esparru horrek behera egin du. Industria da balio handiagoko lanpostuak sortzen dituen arloa, soldata altuagoak ere badituena. Nahiz eta sektore horretan goranzko joera izan, oraindik immigranteen presentzia ez da oso handia.

EAEn bizi diren atzerritarrei egindako kontratuen bilakaera, sektorearen arabera, 2008-2018




Iturria: geuk egina, LMGSMren datuak oinarri hartuta.

Seigarren grafikoa. Iturria: Ikuspegi - Atzerritar biztanleria eta euskal lan-merkatua

Bigarrenik, hezkuntza dugu aztergai, kolektibo desberdinen arteko harremanak hasteko eta sendotzeko esparru egokiena dela deritzo itunak. Umeen eta gazteen artean ez ezik helduen artean ere. Ikasleen aukera-berdintasuna aldarrikatzen du, ostean lan-merkatuan integrazteko aukera berak izan ditzaten. Hezkuntza sistemak inklusibitatea sustatu eta bermatu behar du, ikasle bakoitzari bere ezaugarriak kontuan hartuta gaitasunak garatzen lagunduko diona eta ghettoak sortuko ez dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoak borondatea erakutsi du baina arazo bat dauka gai honetan. Ikasle immigranteen segregazioa eta formakuntza-maila baxuagoa errealitate bat da eta horrek ez du laguntzen hurrengo belaunaldien integrazioan. Argi eta garbi ikusten da hiru faktore aztertuz: immigranteen gehiengo matrikulatzen den ikastetxe mota, immigranteen gehiengo aukeratzeko duen hezkuntza-eredua eta derrigorrezko hezkuntzan daukaten pisua. Horri gehitu behar zaio bertakoen jarrera oro har gure seme-alabak eurekin ez nahastea dela.


Zazpigarren grafikoak adierazten duenez, 2018 urtean lehen hezkuntzan ikasleen %16,4k atzerritar jatorria zuen edo aurrekoak atzerritarrak zituzten. Bigarren hezkuntzan, aldiz, murriztu zen ikasle atzerritarren kopurua (14,6%). Horrek esan nahi du kolektibo horrek arazo akademiko gehiago dituela hezkuntza sisteman kurtsoz kurtso aurrera jarraitu ahal izateko. Zer esanik ez gero Unibertsitatera salto egiterako garaian.



Zazpigarren grafikoa. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Atzerritar jatorriko eskolatzea EAEn eskola-sisteman Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak 2018

Hezkuntza zentroaren arabera konparaketa egiterako orduan ere, nabaria da desberdintasuna. Zortzigarren grafikoak azaltzen du, lehen hezkuntzan atzerriko ikasleen ehunekoa handiagoa izan zela sare publikoan (22,8%) itunpeko sarean baino (9,6%). Bigarren hezkuntzan, aldiz, sare publikoko ikasleen ehunekoa jaitsi egin zen bitartean (%18,0), itunpeko sareak gorakada izan zuen (%11,6). Beraz, immigranteen gehiengo eskola publikoan dabil bertako ikasleen banaketa zentrodeseberdinetan


desberdina izanik. Horrek ghettoak sorrarazten ditu eta kolektibo desberdinen harreman falta.



Zortzigarren grafikoa. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Atzerritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak 2018

Migraziorako euskal itunak ere euskararen ezagutza aipatzen du atzerritarrek gizarte-kohesiorako, sustapen sozioekonomikorako eta euskal gizartearen partaide izateko duten beste aukera bezala. Etorkinei euskara modu erakargarriago batean hurbiltzea izan beharko litzateke helburua, euskal gizartean sendotu eta bere presentzia handiagoa izan dadin.

Etorkinek euren seme-alabentzako aukeratzen duten hizkuntza-eredua aztertuko dugu oraingoan. Datuen arabera, lehen hezkuntzan, aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleek bertakoen eredua jarraitzen dute, hau da, D ereduaren aldeko apustua egiten zuten (%71 inguru). Atzerrian jaiotakoek ere D ereduak aukeratzen dute baina portzentajea zertxobait baxuagoa izanik (%63,6). Gainera, azken hauen artean, nahiz eta B ereduak bigarren aukera izan alde? askorekin (%27) A ereduak ere izan zuen presentzia (%8,7), aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleen eta bertakoak diren ikasle kategoriatan eredu bera aukeratu dutenen bikoitza, alegia. Bigarren hezkuntzan, berriz, D ereduak beherakada izan zuen kategorian guztietan, atzerrian jaiotakoek artean bereziki. Hizkuntzaren zailtasuna dela eta edo eurentzako gaztelerak duen erraztasuna izan daiteke arrazoia.



Bederatzigarren grafikoa: Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Atzerritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak 2018

Itunak fokoa jartzen du herriek eta hiriek gizarte-kohesioan eta elkarbizitzan duten protagonismoan. Immigrazioa globala da baina aniztasuna eta integrazioa bizitza egiten den kale, auzo, herri eta hirietan gauzatzen da. Esparru horietan identifikatzen da hobeto kolektibo desberdinek dauzkaten beharrak eta erantzun antolatuago bat eman ahal zaie. Herritarrengandik hurbilen dauden administrazioek eta instituzioek jokatzeko duten paperaren garrantzia aitortuz, itunak Euskal Autonomia Erkidegoak estatuaren barruan erabakiak hartu ahal izateko ahalmen eta baliabide gehiago eskatzen ditu. Estaturik gabeko nazioa da Euskadi eta, beraz, ez dauka kompetentziarik bere egoerara egokitu den integrazio-eredu integral bat martxan jartzeko. Gai hau hezkuntza, lana, etxebizitza, kultura... arloetan lantzen saiatzen da baina hori ez da nahikoa.


Gaur egun, Gobernu espainiarrak bakarrik kudeatzen du estatuaren barruko immigranteen fluxua. Bere eremuan lana bilatu nahi duten beste herrialdeetako herritarren bolumena erabaki dezake. Horrela zaila da euskal lan-merkatuak dituen berezko eskarietara egokitu ahal izatea eta hemen integrazio plan zehatzak eta aberatsak lantzea. Estatuari immigrazioaren bestelako kudeaketa bat eskatzen zaion bezala, Europar Batasunak ahalmena duen beste esparru bati ere erreferentzia egiten dio dokumentuak, hau da, bere immigrazio-politikari. Europar Batasuna kanpotik datorren herritarra kidea den estatu batean sartu ahal izateko bete behar dituen arauak eta bizileku-baldintzak ezartzeko ahalmena dauka. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan geratzeko borondatea daukaten paperik gabeko immigranteak erroldatzeko, erregularizatzeko, berrekartzeko eta nazionalizatzeko mekanismo berriak eta egokituagoak eskatzen ditu itunak. Immigrazio datuek kontuan hartzen dituzten heinean, integrazio hori bultzatu eta babestu egin behar dela dio. Portugalek, adibidez, koronabirusa dela eta bizileku-baimena ez daukaten etorkinak legeztatu ditu.

Migrazioaren euskal itunak etorkinekiko ditugun aurreiritziak eta estereotipoak ere baztertzeko beharra plazaratzen du. Instituzioek eta gizarte zibilak arrazismoa eta xenofobia barneratuta daukaten diskurtso estigmatzaileei aurre egin behar diotela dio dokumentuak. Arreta berezia komunikabideengan eta profesionalengan jartzen du lan hori egin ahal izateko. Immigranteen integrazioan asko lagundu dezakete, kolektibo heterogeneo bat bezala tratatuz eta aniztasunaren aldeko mezuak plazaratuz. Gorrotoa darioten mezuak ideologia erradikaletatik datoz. Horregatik, ituna saiatu da era berean ahalik eta eragile politiko gehienen babesa jasotzea. Gai horretan gazteok zer esan eta zer egin asko daukagu.

Gazteon artean, bereziki, bi estereotipo nagusi hedatu dira azken boladan. Batetik, jatorri zehatz bateko immigranteak arriskutsuak direnaren iritzia eta, bestetik, etorkin asko gizarte-laguntzez aprobetxatzeko etortzen direla. Hala ere, gazteok ez dugu uste bertakoak baino aurpegi handiagoa dutenik, baizik eta laguntzen kontrol faltaz edonor aprobetxatzen saiatu daitekeela, bai bertakoak eta bai etorkinak. Bertakoei lanpostuak kentzera datozenaren ideia ere azaltzen gara, hemengoek nahi ez ditugun lan deseroso eta gogorretan jarduten baitute.

Gazteoi galdetuta zein den gure sinpatia maila beste herritartasunekiko, datuek esaten dute estereotipoek asko markatzen gaituztela sailkapena egiterako orduan. Baloraziorik txarrena magrebtarrek, errumaniarrek eta asiarrak jasotzen dute.

5. grafikoa. Herritartasun nagusiekiko sinpatia-maila, 2018




Iturria: Ikuspegi, Barometroa, 2018.

Hamargarren grafikoa. Iturria: Euskal gizarte berri eta anitza - Haur eta gazteen aniztasuna EAEn

Bestalde, galdetuta zer irizpide bete behar diren euskal herritarra izateko, jasotako erantzunak nahiko kezagarriak dira. Lehenengo hirurak, Euskal Autonomia Erkidegoan jaio izana (%20,2), hemen gutxienez bost urtez bizi izana (%15,7) eta etorkinak kanpotarrak izango direla beti (%11,8) dira.

1. grafikoa. Euskal gizartearen integratzeko baldintza nagusiak (%)



Hamaikagarren grafikoa. Iturria: Euskal gizarte berri eta anitza - Haur eta gazteen aniztasuna EAEn

V. KANADADAR ETA QUEBEKIAR EREDUAK

Aurreko ataletan azaldutakoak argi erakusten du lan asko dagoela egiteke Euskadin beharrezkoa dugun gizarte multikultural, anitza eta integratzailea lortu ahal izateko. Horregatik, immigrazioa kudeatzeko estrategia egokiak izan ahal izateko, beharrezkoa da esparru honetan eredu diren beste herrialde batzuek adostutako politiken, emaitza onak izan dituzten neurrien eta esperientzien berri izatea. Ez dago jarraitu beharreko adibide absoluturik, herrialde bakoitzak bere egoera partikularra baitauka, baina ez dago zalantzarik gero eta konektatuago dagoen mundu honetan konparaketa aberasgarria izan daitekeela.

Kanadaren adibidea, immigrazio eta dibertsitate handienetarikoa duen herrialdeetarikoa bat, pentsarazi egin diezaguke. Bere biztanleriaren %20 atzerrian jaioa da, hiri batzuetan %50 baino gehiago izanik, eta beste herri batzuek baino arrakasta gehiago izan du egoera horren kudeaketan. Gainera Euskadi bezala nazio-erakuntzan dagoen Quebec herria dauka bere barnean.

Bere arrakasta immigrazioa epe luzerako gertakari bezala eta modu integral batean aurre egin izanean datza. Kudeaketa eraginkor eta sendo bat dauka, helburu zehatz, errekurso anitz eta zeharkakotasun lankidetzazko sare batzuetan oinarritua. Immigrazioa mehatxu bezala ikusteari utzi eta konpromiso nazional argi bat garatzeari ekin zioten. Konturatu ziren immigrazioak ekarpen ekonomiko, sozial, kultural... handia suposatzen zuela eta gizartearen aberastean zuela, elkarbizitzaren duten pertsona desberdinen bitartez.

Lehenik eta behin, Kanadak, estatu federal bezala, Euskadik espainiar estatuari immigrazioaren gaian eskatzen dion parte-hartzea eta erabakitzeko aukera eskaintzen die bere probintziei. Abiapuntu garrantzitsua da, gainerako politikak horren arabera antolatuta baitaude. Horrek, modu koordinatu batean noski, kudeaketa erangikorrago eta gertukoago bat dakar. Euskadik immigrazioaren fluxuak ezagutzea eskertuko luke errekursoak mugimendu horien arabera antolatzeko. Gogoratu beharra dago Espainiak ere Europar Batasunak ezarritako arauak jarraitu behar dituela. Kanadar araudiak paper garrantzitsua ematen die probintziei immigrazioaren finkapenean, probintzia bakoitzaren ezaugarri sozial, demografiko eta ekonomikoen arabera erabakitzen da. Quebecen hitzarmen bat dauka Kanadarekin, bi gobernuen sinatutakoa, eta horren arabera berak bakarrik ezarri dezake probintzian sartu daitezkeen immigranteen kopurua eta osaketa. Badauzka konpetentziak harrera eta integrazio programak garatzeko. Beraz, kanadar esperientziaz ikasi beharreko gauza bat administrazioko maila desberdinen arteko konpetentzien oreka eta koordinazioa da, erabakiak azkarragoak eta eraginkorragoak izan daitezkeen.

Bigarrenik, lan-merkatuari dagokionez, bai Kanadak eta bai Quebecen gaur egun bizi duten arazoetariko bat immigranteek duten langabezia-tasa da. Gainera, lana izatekotan ez dator bat euren formakuntza eta gaitasunekin. Horren ondorioz, txirotasun-arraila nabariagoa da bertako eta atzerriko biztanleen artean. Egoera horri aurre egiteko, saiatzen ari dira kanpoko tituluen eta kredentzialen onarpena hobetzen eta arintzen, bai ezagutza akademikoak eta bai ezagutza linguistikoak. Neurri horien bitartez, gutxituko litzateke atzerritarrek egin dezaketen lan ekarpenaren gutxiespena. Halaber, ondo definitzen ari dira probintzia bakoitzak dituen lan beharrak, immigranteak berdintasun baldintzetan lana aurkitzen lagundu ditzaketen formakuntza eta birgizarteratze-programetan inbertitzen ari dira eta oreka bat diseinatzen ari dira denborazko lanen langileen eta egoiliar etengabeen artean. Euren ikuspegia, beraz, lan-eskaintza baldintza onetan eta beharren arabera izatea da. Lan egiteko heltzen diren etorkinen familien etorrera ere errazten dute Kanadan. Familia berriz biltzea, migrazio prozesuaren aspektu ezinbestekoa da, familiak eragin handia daukalako integrazioan. Bestalde, immigrante-langileen aukeraketa zorrotz batek, kontratazioa maila altuko segmentuetara murrizteak, giza eskubideen aurka jo dezake eta beste lan eta gizarte esparru batzuk hustu.

Hirugarrenik, integrazioari, eta inklusio sozialari dagokionez, Kanadako estatuak sutsuki defendatzen ditu dibertsitate kulturala eta gutxiengoaren eskubideak eta aldi berean, bertako balore elkarbanatuak, berdintasuna eta diskriminazioaren aurkako kanpainak sustatzen ditu. Kanadan joera desberdinak daude integrazio sozialarekiko

probintzien ezaugarri eta behar desberdinen arabera.

Espainiar estatuan, Kanadan bezala, bi pluraltasun prozesu daude. Alde batetik, barne identitate desberdinena, Euskadiren kasua adibidez, eta bestetik, kanpotik heldutako identitate internazionalena. Quebecen garrantzia ematen diote integratzearen erreminta bezala frantsesari eta Euskadin euskarak antzeko papera jokatu dezake. Quebecen erlijioek eta kulturek bere balioetan eta identitatean izan dezaketen eragina ere aztertu dute eta hartutako erabakia laikusuna orekatzea izan da. Estatuak ez du erlijio konkretu bat bultzatzen, baina ez dio sekularismoari mesederik egiten erlijioen kaltetan. Sinesmenak publikoki adierazteko askatasuna ematen dute, ez daitezela arlo pribatuan soilik geratu, gizartea aberasten baitute.

Kanadan oso ondo funtzionatu dute sustraitze-programak, politika multikulturalak, giza eskubideen defentsa eta instituzio barneratzaileak. Horren adibide da herrialde osoan zehar dagoen liburutegi publikoen sarea. Etorrintzako errekurtso eta zerbitzu asko eskaintzen dituzte eta Euskadirentzat ideia bat izan daiteke. Kanadan barneratuta daukate integratzea bi noranzkoa dela, bertakoak eta etorkinak, biak, egokitu behar dira. Kultura-aniztasunaren eta jatorrizko kulturak mantentzearen aldeko apustuak ez ditu inondik ere giza eskubideen eta demokraziaren aurkako jarrerak onartzen. Quebecen, Euskadin bezala, berezitasun historikoak eta politikoak dituzte eta horregatik Kanadaren integratze-prozesutik desberdintzen den euren programa propioa daukate. Proiektu orokorrak bere kultur eskubideak mugatzen zituela uste izan zuten. Legeen bitartez saiatu dira immigratzea integratzen eta euren eskubideak bermatzen baina frantsesa komunikatzearen hizkuntza izanik. Probintzia irekia eta eskuzabala da etorkinekiko eta horiek frantsesaren aldeko kanpainaren alde egiten dute. Frantsesaren ikasketa ez da asimilazio neurri bat, baizik eta berdintasunerako eta integratzearen baliabidea. Adibide hori ere Euskadira balio lezake.

Hizkuntza politikarekin jarraituz, erronka handia da eleaniztunak diren herrietan immigratzeak dakartzan bestelako hizkuntzen arteko kohesioa eta oreka lortzea. Kanadan argi daukate bertako hizkuntzen erabilpena integratzearen erreminta bezala sustatzeaz aparte etorkinen hizkuntzak ere balioan jarri behar dituztela, gizartea aberasten baitute. Hezkuntza-programak diseinatzerakoan, badirudi integratzearen erreminta onena umeei hizkuntza ikasteko laguntza intentsiboa izatea eta politiki-poliki euren adineko eta mailako irakasgaietako klase arruntetan sartzea dela. Bestalde, euren ama hizkuntzak ikasi eta mantendu ahal izateko, hirietako eta herrietako auzoetako eskoletan ikasteko aukera dago eta bigarren hezkuntzan, ikasleek kredituak lortu ditzakete formakuntza hori izanagatik. Bestalde, ikasleek beharrak

hobeto ezagutzeko eta atentzio pertsonalagoa garatzeko, Kanadako zenbait hiritan eskola publikoan izena eman baino lehen gurasoek eta hurrek egun bat elkarrekin igaro behar dute. Beste ideia interesgarri bat izan daiteke.

Quebecen, legeak aginduta, etorkinek frantsesa hizkuntza nagusia den eskoletan apuntatu behar dituzte euren seme-alabak. Erabaki hau Quebecen frantsesa legedian, justizian, administrazioan, negozioetan eta aisialdian hizkuntza nagusia izan dadila bilatzen duen proiektuaren barnean dago. Esan daiteke lortu dutela. Nahiz eta egoera desberdinak izan, Euskadirentzat balio lezake. Alde batetik, babesa eman etorkinen seme-alabek euskara ikasi dezaten, etorkizunean lan aukera gehiago izan dezaten eta integrazioerako lagungarri izan dadin. Bestetik, jatorrizko hizkuntzak mantendu ditzaten aukerak eskaini.

Azkenik, Kanadan immigrazioaren erronka hobeto landu ahal izateko, Metropoli deituriko proiektu bat daukate. Proiektu horretan ikertzaileek, gizarte zibilak, politikoen, komunikazio hedabideek...parte hartzen dute ardura gehiago edo gutxiagorekin. Proiektu horrek elkarlana eta koordinazioa bilatzen du. Euskadin ere interesgarria izango litzateke horrelako egiturak antolatzea. Unibertsitateetan ikerlariek immigrazioaren eta integrazioaren inguruan ikertzen dute eta ezagutza hori gero teknikariek, politikoen eta eragile sozialek erabiltzen dute.

VI. ONDORIOAK

1. Euskadin immigrazioarekin dugun arazorik handiena ez da arraza, jatorri eta kultura desberdintasuna baizik eta orokorrean pobreziarekin duen lotura. Bertakoek gure burua etorkinen aurretik ikusten dugu eta pertzepzio hori kendu beharra daukagu.
2. Orain arte, Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako politikek gizarte hobe eta kohesionatuago bat bilatu izan dute dudarik gabe, baina batzuetan asmo onetan baino ez dira geratu. Egoera horren kudeaketa ez da bat ere erraza eta inizatiba eta ausardia handiagoa eskatzen du denon partez, bai instituzioen partez eta bai gizarte zibilaren partez.
3. Immigrazioa beharrezkoa da euskal gizarteak biziraun dezan, hil egin ez dadin. Beraz, diagnostiko hori izanda, bertakoak etorkinekiko dugun ikuspegi utiliritarista aldatu beharko genuke eta gurekin batera bizitza-proiektu bat ahalik eta hoberen garatu nahi duten pertsonak diren bezala tratatu.
4. Gizarteratze politikek bi esparru landu behar dituzte bereziki. Maila kolektiboan, gizartean eskubide eta betebeharrak guztiekin parte hartu ahal izateko aukera ematen duten hiritartasunaren eta legezko bizileku-baimenaren prozesuak arindu. Maila indibidualean, oinarritzko baliabideak diren enplegurako, etxebizitzarako, osasunerako, hezkuntzarako eta politika egiteko aukerak bermatu.
5. Bertako gazteak gara etorkinen bigarren belaunaldiarekin harremanetan gaudenak eta elkarrekin eraiki beharra daukagu elkarbanatuko dugun etorkizuna. Horregatik, gehiago eta hobeto hurbildu beharko ginateke kolektibo horretara, beraien iritziak, desioak, jokabideak... hobeto ulertzeko asmoarekin.

VII. BIBLIOGRAFIA

Europar Parlamentua. (s.f.). *Immigrazio Politika*

<https://www.europarl.europa.eu/factsheets/es/sheet/152/la-politica-de-inmigracion>

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako saila. (2019). Migrazioarako Itun Soziala 2018. Hemendik berreskuratua:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_estrategicos_inmigracion/es_p_lanes/adjuntos/PACTO-CASTELLANO-2018.pdf

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Herritartasun, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana. 2018-2020. Hemendik berreskuratua:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_estrategicos_inmigracion/eu_planes/adjuntos/vplaninterculturalidad_eu.pdf

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Immigrazioarako Euskal Estrategia. Hemendik berreskuratua:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_estrategicos_inmigracion/eu_planes/adjuntos/osoko%20bilkura%202013%202011%2011_eu.pdf

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren Plana 2011-2013. Hemendik berreskuratua:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_estrategicos_inmigracion/eu_planes/adjuntos/Immigrazioaren,%20Herritarta%20eta%20Kultura%20arteko%20bizikidetasunaren%20Plana2011_2013.pdf

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Immigrazioari buruzko

II. Euskal Plana 2007-2009. Hemendik berreskuratua:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/2497/eu_2211/adjuntos/ii_plan_eu_skera.pdf

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Immigrazioari buruzko

II. Euskal Plana 2003-2005. Hemendik berreskuratua:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/2497/eu_2211/adjuntos/PLAN_VAS_COINMIGRACIONE.pdf

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. (2018). Atzerritar jatorriko eskolatzea EAeko eskola-sisteman Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak. Hemendik berreskuratua:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/aniztasuna/Atzerritar_jatorriko_ikasleen_eskolatzea_EAeko_eskolasteman.pdf

Ikuspegi. (2020). Begirada 76 – Atzerritar jatorrizko biztanleak EAEn 2020. Hemendik eskuratua:

<https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/eus/pan76eusOK.pdf>

Ikuspegi. (2020). Begirada 75 – Atzerritar biztanleria eta euskal-lan merkatua. Hemendik eskuratua:

<https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/eus/pan75eus.pdf>

Ikuspegi. (2020). Barometroa 2019. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak. Hemendik eskuratua:

https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2019/bar_CAE_2019_EUS.pdf

Ikuspegi (2017). Euskal gizarte berri eta anitza. Haur eta gazteen aniztasuna EAEn 2017. Hemendik berreskuratua:

https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/es/diversidad_infantil/P3_CAP4_nue_va_sociedadEUS.pdf

Ikuspegi (2018). Atzerritar jatorriko pertsonen ekarpen ekonomikoa EAEn BPGD-ren bidez (2018). Hemendik berreskuratua:

https://www.ikuspegi.eus/documentos/informes/Informe_ejecutivo_impacto_PIB_EUS.pdf

Rodríguez García, D., 2010. *Retos Y Tendencias En La Gestión De La Inmigración Y La Diversidad En Clave Transatlántica*. [ebook] Barcelona: Fundació CIDOB.

Hemendik berreskuratua:

<[https://www.cidob.org/publicaciones/series_pasadas/documentos/migraciones/retos_y_tendencias_en_la_gestion_de_la_inmigracion_y_la_diversidad_en_clave_transatlantica/\(language\)/esl-ES](https://www.cidob.org/publicaciones/series_pasadas/documentos/migraciones/retos_y_tendencias_en_la_gestion_de_la_inmigracion_y_la_diversidad_en_clave_transatlantica/(language)/esl-ES)> [2020ko maiatzaren 15ean].

Unesco. (2001). Kulturaren aniztasunaren inguruko adierazpen unibertsala.

Hemendik berreskuratua:

http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/Kultura_Aniztasuna_Aldarrikapena.pdf